EHU



Unibertsitate arrakasta akademikorako programa

ARRAKASTA PROGRAMA

Kolaboratzaileak

araba álava foru aldundia diputación foral

Bizkaia foru aldundia diputación foral

Gipuzkoako Foru Aldundia Diputación Foral de Gipuzkoa

www.ehu.eus

ZER DA?

ARRAKASTA Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiru foru aldundiek sustatutako programa aitzindaria da.

Programa honen helburua da haur eta nerabeen babeserako eta gizarte-inklusiorako foru aldundien sistemen barruan dauden gazteei unibertsitatera sartzen eta unibertsitate-ikasketak behar bezala egiten laguntzea.

GARAIAN ikertaldeak hautemandako premia baten ondorioz sortu zen programa, eta EHUk ekitatearekin eta pertsona guztientzako aukera-berdintasunarekin duen konpromiso sozialaren barruan kokatzen da.

ZER ESKAINTZEN DU?



Banakako laguntza eta jarraipena unibertsitate-ikasketetan zehar, orientazio-teknikari baten eskutik.



Tutore akademikoa ikastegian.



Ordenagailu eramangarria maileguan.



Ikasteko materiala.



Fotokopiak eta inprimaketak.



Administrazio-tasak.



Jarduera akademikoarekin lotutako beste gastu batzuk.

Arrakasta programa dinamikoa eta pertsonalizatua da; horregatik, gazte bakoitzaren beharren arabera ematen dira laguntzak.

NORENTZAT?

Euskal Autonomia Erkidegoko foru aldundien haur eta nerabeen babes-sistemaren barruan adin-nagusitasunera iristen diren gazteentzat.

NOLA PARTE HARTU?

01

Foru aldundiarekin harremanetan jartzea

Interesa duen pertsonak dagokion foru aldundiko Arrakasta programaren arduradunarekin harremanetan jarri behar du.

02

Parte hartzeko eskaera

Parte hartzeko baldintza betetzen duela egiaztatu ondoren, foru aldundiko arduradunak eskaera-fitxa emango dio interesdunari, eta hark fitxa bete ondoren, EHUko Ikasleentzako Argibide Zerbitzura bidaliko du.

03

Hasierako elkarrizketa

EHUko orientazio-teknikari bat harremanetan jarriko da interesdunarekin, lehen elkarrizketa bat egiteko eta behar dituen laguntzak identifikatzeko.

INFORMAZIO GEHIAGO ETA KONTAKTUA

Araba:

945 01 33 94

Bizkaia:

946 01 71 21
(Bilbo)
946 01 31 59
(Leioa)

Gipuzkoa:

943 01 82 56

Posta elektronikoa:

iaz@ehu.eus

Web-orria:

www.ehu.eus/eu/web/graduak/zerbitzuak/arrakasta-programa